

## XEDAPEN OROKORRAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

### 5009

*160/2016 DEKRETUA, azaroaren 22koa, Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutua arautzen duen Dekretua aldatzen duena.*

Azaroaren 21eko 236/2012 Dekretuaren xedea da Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutua-  
ren –AMEI aurrerantzean– izaera, egitura, antolakuntza eta funtzionamendua arautzea. Dekretu  
horretako 2. artikulua 3. paragrafoan biltzen diren funtzioen artean, ezarrita dago AMEIk ez  
duela inola ere egingo «izaera pribatuko jarduera tanatologikorik edo perizialik».

Bestalde, Botere Judizialari buruzko uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa aldatu da uztai-  
laren 21eko 7/2015 Lege Organikoaren bidez. Bada, azken lege horretako 479.5.d) artikuluan  
adierazten denez, auzitegi-medikuntzako eta auzitegi-zientzietako institutueta lanean jardun-  
ten duten auzitegi-medikuek txosten eta irizpenak egin ahal izango dituzte partikularren eskariz,  
betiere arauz zehazten diren kasuetan.

Era berean, Pertsonen zirkulazio-istripuetan eragindako kalte-galerak baloratzeko sistema  
erreformatzeko irailaren 22ko 35/2015 Legean ere, aipatzen da auzitegi-medikuek aukera dutela  
halako lanetan parte hartzeko. Aipatutako legean, erregulazio berria ezartzen da kaltetuen eta  
aseguru-entitateen arteko auziak auzibidetik kanpo konpontzeko; erregulazio hori jasota dago  
Ibilgailu Motordunen Zirkulazioko Erantzukizun Zibilari eta Aseguruari buruzko Legearen testu  
bategineko 7. artikuluan (urriaren 29ko 8/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen  
testu bategin hori).

Erreforma horretan, aurreikusten da alderdiek –kaltetuek zein aseguru-entitateek– aukera izan  
dezaketela auzitegi-medikuen aditu-lanaren kalitate, esperientzia eta inpartzialtasunaz baliatzeko,  
gure sistema judizialean espezialista gaituak baitira. Hartara, auzitegi-medikuntzako eta auzi-  
tegi-zientzietako institutuaren bidez, auzitegi-medikuek parte hartu ahal izango dute, bi alderdien  
adostasunez nahiz interesdunaren eskariz egokituz jotzen denean.

Auzi hori garatzeko, abenduaren 18ko 1148/2015 Errege Dekretua onartu da, zeinaren bidez  
arautzen baita auzitegi-medikuntzako eta auzitegi-zientzietako institutuek partikularren eskariz  
aditu-txostenak egiteko aukera zenbait erreklamazioetan, zehazki ibilgailu motordunen zirkulazioa-  
rekin lotutako gertakarien gaineko auzibidetik kanpoko erreklamazioetan.

Horregatik guztiagatik, eta aipatutako arau-aurreikuspenak aintzat hartuta, beharrezkoa da  
236/2012 Dekretuaren 2. artikuluko 3. paragrafoan bildutako AMEIn zenbait funtzio aldatzea,  
hain zuzen ere haien artean jasotzeko institutu horrek aditu-txostenak egiteko aukera partikularrek  
hala eskatzen dutenean honako kasu honetan: ibilgailu motordunen zirkulazioarekin lotutako ger-  
takarien erreklamazioetan, auzibidetik kanpokoetan.

Horiek horrela, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuak proposatuta, behin Botere Judizia-  
leko Kontseilu Nagusiaren aldeko txostena jasota, behin Justizia Ministerioa, Euskal Autonomia  
Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Gobernu Sala, haren Gobernu Idazkaritza, Euskal Autonomia  
Erkidegoko Fiskaltza Nagusia eta erakunde sindikalak jakinaren gainean jarrita, eta Gobernu Kon-  
tseiluak 2016ko azaroaren 22ko bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, honako hau

2016ko azaroaren 25a, ostirala

## XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Aldatzea azaroaren 21eko 236/2012 Dekretua, Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundea arautzen duena.

Zehazki, Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutua arautzen duen azaroaren 21eko 236/2012 Dekretuaren 2. artikuluko 3. paragrafoa aldatzen da (Izaera, menpekotasun-organikoa eta funtzioak), eta honela idatzita geratzen da:

«3.– AMEIk medikuntzako aditu-probak egingo ditu, hala proba tanalogikoak, nola proba klinikoak eta laborategikoak. Era berean, auzitegi-medikuntzarekin zerikusia duten irakaskuntza- eta ikerketa-jarduerak ere egingo ditu. Haatik, ez du izaera pribatuko jarduera tanatologikorik edo perizialik egingo, salbu eta partikularrek honako kasu honetan eskatutako aditu-txostenak: motordun ibilgailuen zirkulazioarekin lotutako gertakariak direla-eta auzibidetik kanpo egindako erreklamazioak.»

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko azaroaren 22an.

Lehendakaria,  
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburua,  
JOSU IÑAKI ERKOREKA GERVASIO.